



“Krisiaren eragileei etzaie komeni gu amildegian erortzerik, ez behintzat zorrak pagau arte”

Iñigo Almortza | Tratantea

Telebistan agertu aurretik ere, hamaika zezen-plazatan ibilitako auto-saltzaile Bergara-kua.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

Ospatu al zenuen irabazitako lehen milioia?
Milioia? Gu oindik 1000 durokuekin ibiltzen gaitxuk.

Rally kopilotua ere izan zara. Hika hitz eginenez Bergarako euskara oparoan?

Pertsona nagusixekin ez beste danekin, hikan eitxen juat. Baina rallyxetan desgrasiz erderia ibiltzen dok geixen.

Zenbat autografo sinatu duzu *Kalaka* saioan agertzen zarenetik?

Taloietatik aparte bat ez.

Joseba Arregi ala Markos Zapiain?

Ondo kontenplau ezkerro asuntua, Markosekin hobeto konpontzen nok. Gertuaukua itxen jatak.

***Kalakan* zu al zara herriaren ahotsa?**

Ahotsa neria dok. Pentsamendua, herritar askorena, edo behintzat hori adierazten jostek kalia gelditxutakuan.

Sokamuturra antolatzaile legez, behin batean quad batzuk sartu zenituen zezen-plazara.

Denborak modernizau in ditxuk, baserri-xetan be mando edo idixak ibili biharrian traktoria jakitzik. Hala be, quad-akin lagun bat irtetezen dok, baina nik behin Bergarako entzierruan ihes eindako zezen

bat C-15 bati lotuta eruan najuan zezen plazaraino.

Amaia Artetxe ala Lierni Arrizabalaga?

Bixetatik nahi dokena apartau eta ni bes-tiakin konforme. Bixak ditxuk neska politx eta jatorrak.

Hiri entzunez, nork pentsatuko “jok” garai batean batzuei “konplejua” sortarazten ziela bizkaieraz egiteak!

Uste juat badala konplejuak alde batera lagatzeko ordua. Bizkaitxar itxen juat baina gipuzkoarra nok. Etxaukat konplejoik.

***Kalakan* bizi izandako pasarte gogoangarriren bat?**

Egun danak ditxuk bereziak, pasarteik gogoangarrienak *Kalaka* ondorengo egunekuak, kalia gertautakuak ditxuk.

Krisi honek amildegira eramango gaitu?

Amildegitxik gertu ibiltziak arrisku hori jaukak, baina krisiaren eragileei etzaie komeni gu erortzerik, ez behintzat zorrak pagau arte.

Iñigo Agirre ala Xabier Euzkitze?

Xabier-en lotsagabekeri eta ausardia Iñigoren gorputzarekin. ■